

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI)

Albisteak

Ibaizabal ikastolako 94 ikaslek bisitatu dute fakultatea, Durangotik etorrita

2009/11/18

Goizeko 09:00ak jota izango ziren Ibaizabal ikastolaren autobusak heldu direnean Durangotik, bertan 94 ikasle zituztela, **Batxiler 2. mailakoak**, bisitatzeko gertu Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea. Hiru adarretako ikasleak ziren -- Zientzia, Teknologia eta Humanitateak--, baina ez dira bakarrik iritsi, eurekin batera **lau irakasle** etorri baitira.

Ailegatu bezain laster, areto nagusian sartu dira, eta bertan azaldu zaie **zer den Mondragon Unibertsitatea**, eta zeintzuk diren beronen ezaugarri nagusiak. Ondoren, bi taldetan banatu dira. **Batzuei Hezkuntzako ikasketak azaldu zaizkie:** Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza graduak. **Besteei, berriz, Ikus-entzunezko komunikazioa.**

Azalpenak amaitutakoan, **HUHEZI erakutsi zaie**, eta bertako zenbait azpiegitura: liburutegia, multimedia gunea, teknologia zerbitzua eta plastika gela, besteak beste.

Bisita bukatuta, berriro autobusetan sartu eta Arrasatera egin dute Ibaizabal ikastolako ikasleek, bertan asmoa baitzuten Goi Eskola Politeknikoa eta Arizmendi ikastola bisitatzeko.

